



Sarrera	3
<u>1. titulua. Ahal Dugu Nafarroak batzar baten bidez ospatuko du hamargarren urteurrena</u>	3
<u>Eskura dagoen ametsa</u>	3
<u>Trumpen kapitalismoa sistemaren estertoreetan</u>	5
<u>Podemos, datorrenari aurre egiteko bez</u>	6
<u>2. titulua. Nafarroako ezkeraren aliantza bai, baina horrela ez.</u>	6
<u>Nafarroan zer dioten zenbakiek</u>	6
<u>Koalizio gobernua, kriptonita Podemosentzat</u>	7
<u>Ahal Dugu Nafarroa alderdiaren espirtua berreskuratzea</u>	8
<u>3 titulua. Ahal Dugu Nafarroa, memoria duen etorkizuna.</u>	10
<u>Pentsiodunen itsasaldia</u>	10
<u>Erronkak bide paraleloetan</u>	10

Sarrera

Orgullosamente Podemos – Ahal Dugu Harrotasunez hautagaitzak azken urteetan Nafarroan ahotsa galdu duela sentitzen dugu, eta hori berreskuratzea izango da, hain zuzen, gure hautagaitzaren helburuetako bat. Aldarri hori militantziaren eskutik etorri da, eta, gauza asko izan baditu ere kontra, leial eutsi dio Ahal Duguren printzipioei, harrotasunez. Lehentasunezko zeregin horretarako, aktibatu nahi dugu bidean geratu den militantzia hori, eta baita Ahal Dugu Nafarroari laguntzen jarraitzen dion jendea ere.

Gure zereginik berehalakoena komunean duguna berreraikitzea izango da, eta, horretarako, beharrezkoa izango da gure militanteek, izena emana dutenek, parte hartzea; horrela, indartu egingo da gizarte-erakunde eta -kolektiboekin egindako aliantzen papera, eta modu aktiboan entzungo diegu arlo horiei. Nafarroako Ahal Duguren helburuak, mugimendu demokratiko eta herrikoia den aldetik, justizia sozialaren, herri-mugimenduak indartzearen eta gizartea eraldatzearen alde lan egitea eta borrokatzea izango dira. Jendeak, prozesu politikoan eta sozialean zuzenean parte

hartuz, bere bizitza erabakitzeko gai izan dadin lortzeko helburua azpimarratu behar dugu.

Erakundea prestatu behar dugu, bai ikuspegi politikotik bai ikuspegi sozialetik, Ahal Duguren ahalmen mobilizatzailerak, propositiboak eta instituzionalak finkatzeko eta zabaltzeko, eta gizartea ahalik eta gehien indartzeko eta mobilizatzeko. Ahal Duguk Nafarroan duen indarra berreskuratu nahi dugu, gure Foru Erkidegoan behar diren aldaketen eragile erabakigarri gisa; Ahal Duguk akordioak lortu ahal izango ditu beste indar ezkertiar, nazional eta autonomiko batzuekin. Izan ere, gure alderdiaren bizitza laburrean, Ahal Duguk gehiengo aurrerakoiak antolatu ditu herrialde honetan zein Nafarroan, 2015. urteaz geroztik.

1. titulua. Ahal Dugu Nafarroak batzar baten bidez ospatuko du hamargarren urteurrena

Eskura dagoen ametsa

Nafarroako Ahal Dugu alderdiaren IV. Batzarrak bat egiten du Foru Erkidegoan "Aldaketaren Gobernu" izenez ezagutzen denaren hamargarren urteurrenarekin; Nafarroako lehen Herritar Kontseiluak ere hamar urte egingo ditu. Bi kasuetan, jendearen indarrari eta alderdi-bitasunari aurre egin ahal izateko itxaropenari esker, aniztasuna indartu zen Nafarroan, zuria edo beltza, "nirekin edo nire kontra" pentsaeren gainetik, eta elkarriketari eta eztabaidari heldu zitzaizkien berriro, herritarrentzako eskubide errealetan aurrera egiteko oinarri nagusi gisa. "Aldaketaren Gobernu" izan zen, Legebiltzarrean oinarritua, non alderdi-bitasunarekin alienatuta ez zeuden indarrek lortu baitzuten gehiengoa.

Nafarroako politikan gertatu zen aldaketa haren funtsezko pieza Podemos-Ahal Duguren eskutik etorri zen, zalantzarik gabe, eta hamarkada askotan ezinezkoa zirudiena egin ahal izan genuen: alternatiba bat osatu genuen hainbat hamarraldiz UPN/PSNren arteko trukearen aurrez aurre, eta politikaren erdigunean jarri genuen Nafarroan bizi diren pertsonen bizitza, eraldatzeko asmoarekin.

Nafarroako Ahal Dugu alderdiaren IV. Batzar hau "Aldaketaren Gobernu" hori amaitu, eta hura bultzatu zuten indarren ordezkariak gehiengo hura galdu eta sei urtera iritsi da, nahiz eta PSOEren ezkerrean dauden ezkerrek bat eginda aurkeztu ginen azken hauteskundeetan.

Legealdiko lau urte haietan (2015-2019), Foru Parlamentuak herria ordezkatzeko duen erakundeari berez dagozkion indarra eta protagonismoa lortu zituen. Herri ordezkarietako organo horrek zerga-erreforma bat lortu zuen (agian ez zen nahikoa, kapitalak eta enpresa etekinak egiteke geratu baitziren), eta, horri esker, biztanleek berek premiazko zatik jo zituzten zenbait aldaketa egin ahal izan ziren: sukalde publikoak Nafarroako ospitalera itzuli ahal izan ziren; aurreko legegintzaldian funtzionarioei egindako murrizketak itzuli zitzaizkien; ikastetxeetan ikasgeletako ratioak murrizten hasi ziren; osasun arloko itxarote-zerrendak murriztu ziren; mendetasunari emandako arreta hobetu zen;

garapenerako lankidetzeta-funtsak handitu ziren, azken urteetan modu basatian murriztuak; Gizarteratze Errenta eta Errenta Bermatua onartu ziren; etxebizitza publikoen kopurua handitu ahal izan zen. Horrez gainera, abian jarri zen Eskolae programa, ikasgeletan berdintasuna eta aniztasuna lantzeko; anbulantzien zerbitzu publikoa eskaintzeko prozesu luzeari ekin zitzaion (duela gutxi amaitua); memoria historikoa lantzen hasi zen, erakundeek hainbat urtez ahaztutako errepresioaren biktimek merezi zuten sakontasunez.

Aldaketaren legealdiko lau urte haiek erakutsi zuten publikoaren, komuna denaren, kudeaketari aurre egin ahal zitzaiola, oinordetzan jasotako sistemaren barruan. Ehun foru-lege baino gehiago onartu ziren, eta gehienek berehalako eragina izan zuten gizarte-ongizatean. Eta, jakina, sistema ez zen besoak gurutzatuta geldituko; gupidagabe eraso zioten, alde guztietatik, Nafarroan hainbat eta hainbat aldaketa eragin zituen eta Estatuan ere horiek berak errepika zitzakeen alderdiari. Jakina, akatsak ere egin genituen, garrantzitsuak gainera, eta, horrek ahuldu egin gintuen eta Nafarroako gure hautesle askok galdu egin zuten gudanako konfiantza.

Aldaketa haiek guztiak zapuztu egin ziren 2019an, erkidegoko hauteskundeetan ezkerrek emaitza kaskarrak izan baitzituen. Emaitza horiek hainbat faktoreren ondorio izan ziren: barne-faktoreak, aldaketa bultzatu zuenaren aurka iraultzen zen sistema baten erasoak, eta, agian, ezkerreko aliantzak ez bultzatzearen eta deialdi hartara bereizita joatearen akatsa.

PSNren ezkerreko dagoen ezkerrearen ordezkariak galtzearen ondorioz, alderdi hark gora egin zuen eta Foru Gobernura iritsi zen. Kudeaketa horrek gaur egun arte iraun du, eta, zoritxarrez, azken egunotan "Cerdan" auziak ziprztindu du. Nafarroa ustelkeriaren mapan kokatu da berriz ere alderdi-bitasunaren eskutik, PSN-PSOEn txandan oraingoan. Koalizioko gobernuak, nagusiki neoliberalak (edo zenbait gunetan "sozial-liberal-berdea" deitua), tarte gutxi utzi dio 2015eko lau alderdiko legealdian sistema zalantzan jartzea helburu zuten politika hasiberri haiekin jarraitzeko aukerari.

Egia da aurreko legealdiko lehen aldiaren testuingurua Nafarroan (2019-2023) bat datorrela pandemia orokorraren zurrunbiloarekin, eta horrek geldiarazi eta izoztu egin zituen abian jarritako aldaketa-politikekin jarraitzeko edozein proposamen. Krisi horri ez zitzaion aurre egin eskuinak kudeatutako gisa horretako beste krisi batzuei iraganean egin bezala, oso modu desberdinean baizik. Kudeaketaren aldaketa hori, ez da ahaztu behar, 2020ko urtarriletik 2023ra arte Ahal Dugu alderdia Estatuko Gobernuan sartu izanak bultzatu zuela, neurri batean, eta pertsona ahulenak babesteko ezkerreko neurri batzuk behartzea lortu zela. Politika ekonomiko hedakorrek eta gizarte babesaren aldekoak pandemiari aurre egiteko aplikatu ziren, lehenik, eta Ukrainako gerraren ondorioei aurre egiteko, gero. Politika horiek baliagarriak izan dira jendea une txarretan babesean jartzeko, ekonomiari eragozpenik ekarri gabe.

Krisi horiei aurre egiteko onartutako Next Generation funtsek balio behar zuten, krisi horien ondorioei aurre egiteko ez ezik, honako erronka hauei aurre egiten jarraitzeko ere: klima-aldaketa, desazkundera gizarte-ongizatea galdu gabe, bidezko trantsizio ekosoziala, zerbitzu publikoen eta azpiegitura publikoen zeregina indartzea, etxebizitza-krisi larriari aurre egitea...

Oso bestela, PSOEn politika ekonomiko neoliberalak, bigarren agintaldi horretan eta Ahal Dugu alderdia Gobernu zentraletik kanpo zegoela jada, aberastasuna esku gutxi batzuetan geratzea ekarri dute ondorioz (2024an, Espainiako enpresa handiek 40.000 milioi euroko zifra errekorra lortu zuten dibidenduetan), eta uko egin zioten energia- eta elektrizitate-merkatuan askoz ere sendoago esku hartzeari, higiezinaren merkatuan esku hartzeari edo elikadura-enpresa handien mozkinen marjinak mugatzeari, oinarrizko produktuen prezioen gorakada basatiaren testuinguruan.

Nafarroak ere ezin izan dio iskin egin Europa erreperatzeke plan honen bidez jasotako dirulaguntzen zati handi bat enpresa handien esku gelditzeari. Nafarrora iritsi diren funtsen % 20

baino gehiago (1.400 milioi euro inguru, % 50 gauzatuta) multinazionalak eta enpresa-erakunde handietara bideratu dira.

Nafarroan ezkerre ahulduta dagoelarik eta gaur egungo koalizio-gobernuaren kudeaketa neoliberalarekin pozik, gure programan ezarritako helburuen eskakizunak murriztu egin dira. Nafarroako Batzarrak onartu zituen helburu horiek, ez soilik programaren bidez, baita zuzendaritza gidatzen duten dokumentuen bidez ere. Erakundeetan ordezkatzeko gaitzutei eta gure alderdia hemen edo Estatuan gidatzen dutenei helburu horiek betetzea eskatu behar diegu, eta Gobernuaren aurrean dugun jarrerarekin zorrotzak izan behar dugu, hautatu gaituzten herritarren interesak defendatzeko. Zorrotzak izan behar dugu etorkizun morerako bidean, eta etorkizun berdea argia eta zehatza izan dadin lortu behar dugu.

Trumpen kapitalismoa sistemaren estertoretan

Bigarren milurtekoan egin dugun mende laurden honetan aldaketa sozioekonomiko eta politiko handiak gertatu dira munduan, Europan, Espainian eta baita Nafarroan ere. Eraldaketa horiekin batera, hainbat krisik astindu gaituzte 2008. urteaz geroztik (arrazoi oso sakonen ondoriozkoak eta erantzun sozial eta politiko indartsua eragin dutenak). Adierazitako maila horietan, halaber, aldaketa ugari izan dira, gehiengoaren behar eta interesen aldekoak ez diren norabideetan askotan.

Gertueneko eremuetan –Espainiako estatua eta, zehazkiago, Nafarroa–, milurtekoaren hasierako krisi ekonomiko haiei erantzuteko, aldaketak gertatu ziren gizarte-eskaeretan eta -mugimenduetan, eta horiek ezinbestekoak izan ziren itzaropen-bide bat zabaltzeko; bestalde, Aldaketaren legealdia lortu genuen haiei esker.

Hala ere, Estatuan eta Nafarroan izandako aldaketa positiboak esparru politikoan kokatzen dira esparru sozioekonomikoan baino gehiago. Sistema ekonomikoan ez da aldaketa aipagarrikerik gertatu, ez dezagun ahaztu zein asmo eskasa duten neurri fiskalek eta sozialek (indarrean dagoen mozal legearekin), ezta aldaketa sakonak ere politika publikoen esparruan, ez baitira nahikoak krisi horien ondorioz oso kaltetuta geratu diren sektore sozialen sufrimendua murrizteko. Finantzen, ekonomiaren, armagintzaren eta politikaren arloko botere handiek sortutako krisiak dira, eta areagotu egin dira azken 30 urteetan, baliabideen eskasia dela eta.

Eta oraindik ez zirelarik ezarri gizarte-eraldaketa horretarako beharrezko neurriak, eta jada ezarrita zeudenei ez zaielarik aurrerabiderik eman, globalizazio neoliberal baten aurrean gaude, krisi hegemonikoan zeuden Estatu Batuek bultzatua; alde batetik, muga-zergen gerra bultzatuz eta, bestetik, blokeen arteko gerra bat, zeinetan erabili batiren zenbait herrialde indarkeria bikario gisa. Bloke horiek beren arma-indarrak hedatzen dituzte, Palestina bezalako herri osoak suntsituz, Ukraina bezalako herrialdeak inguratuz, Europarentzat zentzagarri eta blokeen artean pultsua hartzeko. Mundua polarizatu egin da, eta, horren ondorioz, Bigarren Mundu Gerraren ondoren lortutako adostasun guztiak suntsitu dira, eta NBE ikusle huts bihurtu da.

Esparru distopiko horretan, azken bost urteotan bizi izan ditugun krisiek (pandemia, gerrak, polarizazio erreakzionarioa) erakutsi digute: zerbitzu publikoek, osasunak, hezkuntzak, gure adinekoen eta haurren laguntza-zentroek, familia osoak erortzen ez uzteko ezkutua sozialek, azpiegituren mantentze-lanek, azken batean "Ongizate Estatu" esaten diogun horrek, babes ekonomiko publikoa beharrezkoa dela, haustura soziala behin betikoa izatea nahi ez badugu.

Eta, hain zuzen ere, "Ongizate Estatu" horren alde egin zuten apustu Europako demokraziek bigarren mundu gerraren ondoren, eta horien gainean jarri dituzte beren interesak, aspaldidanik, inbertsio-funtsek, edozein banderako "funtz putreek", oligopolio garrantzitsuak dituztelarik atzean. Arlo publikoaren benetako harrapariak dira, guztion artean apurka-apurka sortu dugun aberastasun

sozial hori erretiluan zerbitzaten duen eskuinaren eta ultraeskuinaren onespenearekin, eta horren onuradun. Onespen hori erakunde politiko eta publikoetan indarra hartzeko erabili da, eta, hortik, gorroto-programak eta -diskurtsoak hedatu dituzte: diskurtso erreakzionarioak aurrerapen feministaren aurrean, benetako berdintasunaren aurrerapenaren aurrean, pertsona guztientzako eskubideen aurrerapenaren aurrean, edonondik datozela ere. Bien bitartean, kontsentsu sozialaren bidez lortutako zerbitzuak pribatizatzen ari dira, eta ikusten dugu funts horiek erabiltzen dutela gure bizitza, gure baliabideak (osasuna, hezkuntza, egoitzak, tutoretzapeko etxebizitzak), alegia, Ongizate Estatua osatzen duen guztia.

Ahal Dugu indartsu, datorrenari aurre egiteko

Ikuspegi ilun hori gorabehera, ez dago inondik ere itxita aldaketa sakona egiteko aukera. Garrantziko aldaketa bat da, behetik hasi beharko duguna, baina, aldi berean, goiko mailetan garrantzi handiko aldaketei ekitera bideratuta egon behar du, eta handinahia izan behar du. Nahiz eta jakin badakigun aldaketak zailak izango direla. Bizi garen mundu globalizatuan, eta are gehiago EBren antzeko egitura gotortuetan, aldaketak urriak izango dira tokiko edo estatuko eremuan, baldin eta ez badiegu aldi berean heltzen goragoko eremuetako egitura eta gainegitura horien eraldaketei, beste leku batzuetako jendearekin eta indarrekin elkartuta edo koordinatuta. Dena dago zabalik oraindik, eta datozen urteetan bultzada politiko eta sozial handia emateko prestatu behar dugu, adierazitako zentzuan.

Eta bultzada horretan Ahal Dugu alderdiak rol protagonista eduki behar du, funtsezkoa. Hortik dator gure alderdiaren egitura behetik indartzeko beharra, prest egon behar dugu erantzukizun handi hori gure gain hartzeko. Sekulako lan historikoa da, eta botere izugarria duten etsaiak ditugu aurrez aurre. Egunero ikusten ari gara hori Estatu mailan. 2020an Ahal Dugu Gobernuan sartu zen, eta izugarritzko zaplaztekoa izan zen botere-eremuentzat; horregatik gertatu dira, behin eta berriz, etengabeko erasoak, hainbat botere eta egituren bitartez. Izan ere, botere eta egitura horiek, gaur egun ere, kolpeka jarraitzen dute, erakundeetan, sasi-demokrazia horren kontrolpean zeudela uste zuten herriaren ordezkartza-organoetan dugun presentzia higitzeko eta ahultzeko.

Gure gizarteak eskatzen dituen sakoneko eraldaketa horien beharra ere historikoa eta premiazkoa da, eta ezin ditugu alde batera utzi, zailak izan arren. Bidegurutze batean gaude, eta jende askoren etorkizuna dago jokoan; arduragabekeria litzateke hori lortzeko gure esku dagoen guztia ez egitea.

Zentzu horretan, dokumentu honek plan politiko eta sozioekonomiko bat izan nahi du Podemos-Ahal Dugu Nafarroarentzat, datozen urteetarako azterketa- eta jarduera-ildo nagusiekin. Ez da programa bat. Nafarroako gizartearen diagnostiko bat aurkeztea da helburua, bere testuinguruan kokatua, eta ibilbide bat planteatzea, funtsezko helburuak, Nafarroako Podemos-Ahal Duguk datozen urteetarako ezarri behar dituen jarduera-ildoak eta estrategia jasoko dituen. Podemosen helburu orokorra izan behar du politikoki eta sozialki prestatzea alderdiaren eta "Aldaketaren aldeko Indarren" botere instituzionala finkatzeko eta zabaltzeko Nafarroan, bai eta Nafarroako gizarte zibila ahalik eta gehien indartzen eta mobilizatzen laguntzea ere.

2. titulua. Nafarroako ezkerren aliantza bai, baina ez horrela.

Nafarroan zer dioten zenbakiek

Garai demokratiko honetan Nafarroan egin diren hauteskundeetan, hautesleek ez diote inoiz % 10 baino gehiagoko babes eman PSOEn ezkerrean dagoen ezkerreko indar ez-independentista bati. PCEk lehenengo bi legegintzaldietan, Izquierda Unidak eta Izquierda Ezkerrak gero, ez dute inoiz % 10 hori gainditzea lortu.

Ahal Dugu Nafarroan sartu zenean, IEk botoen % 3,7 lortu zuen, eta Nafarroa Ahal Duguk, berriz, botoen % 13,7. Babes hori % 28,3ra igo zen 2016ko hauteskunde orokorretan, eta Nafarroan lortu zuen alderdi-bitasunarekin zerikusirik ez duen indar baten babesik handiena.

Ez da ahaztu behar 2015etik 2019ra bitartean Espainiak lau hauteskunde orokor izan zituela, eta oso bestelako emaitzak lortu zituela alderdi moreak. Lehen hauteskundeetako emaitza onek eragin zuten Ahal Duguren aurkako gerra zikinaren hasiera. Etengabeko jazarpena jasan dugu, lawfare informazio polizial faltsutuekin, 'Estatuaren estoldak' alderdi baten zerbitzura eta aurkari politikoen aurka, komunikabideen blokeo sistematiko batekin, Podemosen buruzagien atean urtebetez baino gehiagoz luzatutako *escrache*ekin... Aldi berean, bai Nafarroan, bai beste lurralde batzuetan eta baita Estatu osoan ere, alderdiak tentsio ugari jasan ditu erakundearen baitan, eta horrek pixkanaka hauteskundeetako babesak galtzea ekarri zuen.

2019ko hauteskunde orokorretan, alderdiaren babesak % 16,74ra jaitsi zen Nafarroan, eta Kongresuko diputatuak bere horretan jarraitu zuen. Erkidegoko emaitzak, berriz, % 4,74an geratu ziren, eta zazpi foru parlamentarietatik bost galdu ziren. Hauteskunde horietan bertan, Izquierda Ezkerrak % 3 lortu zuen. Bi indarren artean 3 eserleku eta botoen % 7,75 lortu zituzten Nafarroan.

Koalizio-gobernuak, kriptonita Ahal Dugurentzat

Nafarroako Ahal Duguk hautesleen konfiantza galdu badu ere, zuzendaritzak, 2019an, aintzat hartu zuen egokia ote zen gutxiengo argian egotea Foru Gobernu bateko kide gisa, 18 urteren ostean, Nafarroako Gobernura itzuliko zen PSNrekin eta Geroa Bairekin, zeina baitzeturten 'Aldaketaren Gobernu' zelakoaren lehendakaritzatik. Baldintza horietan sartu ginen koalizioko foru gobernuan; joera neoliberaletako (edo 'sozial-liberala' duten alderdietan) alderdiek % 90eko garrantzia zuten, bat genduzen politika ekonomiko eta ekologikoetan eta Podemos alderdiarentzat funtsezkoak diren alderdietan, gure ideia politikoak ordeztu gabe. Alderdi horien politiken ardatz egituratzailea ez da energia- eta ekoizpen-eredu berri baterako trantsizioa, eta are gutxiago hurbiltzen dira ekonomiaren beharrekada planifikatuaren ideiarantz; aitzitik, legegaldi hartan eta oraingo honetan, S4 bihurtutako S3an oinarritu ziren, zeinaren filosofia neoliberalak baitzen, argi eta garbi.

2021ean iritsi ginen Nafarroako Ahal Duguren III. Batzarrera, eta alderdia zuzentzeko aurkeztu ziren hiru hautagaitzen ustez, ezkerren aliantza zen proposamen politikoen gakoetako bat. Aliantza horretan, primarioak irabazi zituen taldea, "Podemos berrabiarazi" hautagaitza, ia proiektu bakar gisa erabili zen. Horrela, 2023ko foru hauteskundeetara iritsi ziren, koalizioan, Izquierda Unida, Batzarre, Alianza Verde eta "Independiente" gisa eratuak pertsona talde bat. Nafarroako ezkerren itxurazko behin betiko aliantza horrekin botoen % 6,08 eskasa lortu zen, 2019ko erkidegoko hauteskundeetan baino puntu bat gutxiago, hauteskunde horietara ez baitziren elkarturik aurkeztu; gogora dezagun, %

7,75eko babesaren lortu zela. Contigo-Zurekin koalizioko alderdietako hiru parlamentariak berregin ziren, eta beste behin, aurreko legealdiko bazkide neoliberal berberekin, PSNrekin eta GBrekin, agerikoa izan zen osatutako koalizio gobernuan sartzearen aldeko apustua.

Eta zer gertatu da alderdiarekin, alderdi politikoarekin, koalizio-gobernuen azken sei urteetan? Bidean, eta Nafarroako Ahal Duguren ordezkari gorenak izaera sozial-liberaleko bi foru exekutiboren kontseilari bihurtu diren sei urte hauetan, atzerakada nabarmena izan da parte-hartzean: orain bost zirkulu aktibo baino ez daude Nafarroa osoan, baina 2015ean 17 edukizera iritsi ginen; atzerakada handia izan da parte-hartze asanblearioan eta mugimendu sozialetan. Eta galdu egin da, argi eta garbi, Podemos alderdiaren proposamenen eta programaren ahotsa eta errebindikazioa. Alderdiaren organoak ahulduta daudelarik, pertsona talde txiki batek hartzen ditu erabakiak. 10 urtean 6.000 pertsona izatetik izena emana zutenak, gaur egun 1.680 izatera iritsi gara.

Ikuspegi horren aurrean esan behar dugu, **Orgullosamente Podemos – Ahal Dugu Harrotasunez** hautagaitzaren helburuen artean dagoela, Gobernu batean parte hartzearen gainetik, erakundeetako ordezkariaren gainetik (horiek ezinbestekotzat jotzen ditugu gure alderdiaren ahotsa izateko), Nafarroan ezkerrek bat egiteko helburuaren gainetik, gure erakundearen bertan militantzia aktibatzea, berpiztu ordez poliki-poliki itzaltzen joan baita.

Nafarroako Ahal Duguren espiritua berreskuratzea

Eta komuna berreraikitzeke zeregin horretan, beharrezkoa izango da gure militanteek eta izena eman dutenek parte hartzea –horretarako, indartu egingo dira gizarte-erakunde eta -kolektiboekin aliantzak– eta gune horiek aktiboki entzutea. Haien aldarrikapen justuak babestu behar dira, haiei laguntza emanez, kolektiboak instrumentalizatu gabe, baizik eta haien aliatu eta bozgorailu bihurtuz erakundeetan. Izan ere, Nafarroako Ahal Duguren helburuak, mugimendu demokratikoa eta herrikoa den aldetik, justizia sozialaren alde lan egin eta borrokatu behar du, herri-mugimenduak indartzearen alde, gizartea eraldatzearen alde. Azpimarratu behar dugu jendeak bere bizitza zehazteko gaitasuna izan behar duela, zuzenean parte hartuz prozesu politikoan eta sozialean.

Eta parte-hartze zuzenera, eztabaidetara, batzarretara, aktibismora (indar eraldatzaile gisa) itzultzeko ateak zabaldu behar ditu parez pare Nafarroako Ahal Duguk eta gure Foru Erkidegoko kale eta lurralde guztietara jo behar du. Nafarroako Ahal Duguk plazetan eseri behar du, eta berriro entzun behar die indar eraldatzaile gisa haren aldeko aldarria egin eta errebindikatu zuten herritarrei, eta hor egon behar du, ikusteko moduan, eskuragarri, horizontalean.

Gure Foru Erkidegoan gertatu behar duten aldaketetan funtsezko indar eraldatzaile gisa Nafarroako Ahal Dugu berreskuratzeke bultzada horren bitartez, Ahal Dugu adostasunera iritsi ahal izango da ezkerreko beste alderdiekin, bai nazio mailan bai erkidegoan. Izan ere, gure alderdiaren bizitza laburrean, Ahal Duguk herrialde honetan, Nafarroan 2015ean eta Estatuan gehiengo progresistak eratzea lortu du. Estatuan lortu zen, hain zuzen ere, lehenengo koalizio-gobernu aurrerakoia, Ahal Dugu tartean zela, eta, zalantzarik gabe, hori izan da herrialde honen historia demokratikoan politika progresistetan denbora gutxienean eta krisi orokor baten baitan aurreratzea lortu den uneetako bat.

Orain Europan ere gertatzen ari da, Ahal Dugu beste lau indar kiderekin batera, Herrien eta Planetaren aldeko Ezkerreko Europar Aliantza (ELA, ingelesezko sigletan) bultzatzen ari gara. Aliantza horren sorrerako ardatzen artean daude, besteak beste, bakearen defentsa eta Israelgo Estatuak Europaren konplizitatearekin Gazan egindako genozidioaren amaiera; aberastasunaren birbanaketa aberatsenei eta aparteko onurei zergak ezarri; trantsizio ekologikoa; politika feministen babesaren eta etxebizitzarako eskubidea, edo Europa sendoaren haustura giza eskubideen aldeko migrazio-politikarekin. Era berean, Europako alderdi ezkerreko eraldatzaileentzat, ekosozialistentzat,

feministentzat eta antikapitalistentzat espazio komun bat eratzeko lanean ari da, Estatu Batuetako eta Europako eliteek murrizketa sozial handiak eta Europako herritarrentzako eskubideetan atzerakadak ekarriko dituen gerra-erregimena inposatzen duten une historiko honetan.

Ez dago zalantzarik, gure alderdia, Ahal Dugu, hainbat aliantzatan parte hartu duela eta halakoak bilatu dituela; bilaketa hori gure alderdiaren nortasun-ikur bihurtu da, azkenik. Baina aliantza horiek behetik gora egin behar dira, mundu berdintsuago eta bidezkoago baten aldeko borroketan, ezkerreko proposamen eta programetan oinarrituta, eta, beste ezeren gainetik, gure alderdiaren zimenduak dardararazi gabe, haien ahotsa, irudia, nortasuna ikusezin bihurtu gabe (kalean herriaren borrokez blaituta); haien eskubideak erreklamatu behar ditu, zalantzan jartzen ditu gutxi batzuen pribilegioak eta herrien arteko eta klase herrikoien arteko liskarrak ezabatzen ditu. Hala egin behar da Nafarroan ere, helburu argien arabera jarduteko.

Horregatik esaten dugu "Ezkerraren aliantza bai, baina ez horrela", primario hauek ez direlako ezkerren arteko aliantzak. Primario hauen oinarria gure alderdia Nafarroan kudeatzeko proposamena da. Ahal Dugukoak izateaz eta gure kolore morea ez ezkutatzeaz harro egotea. Nafarroak beharrezkoa du Ahal Dugu, aurkezten diren ezkerreko koalizioak eta proposamen bateratuek Ahal Duguren beharra eduki behar dute, baina indar politiko batekiko errespetuan oinarrituta betiere. Jakina, proiektu aurrerakoi berri baten eraketari erabateko errespetua diogu, baina ez beste aurkari politiko baten higaduratik eta deuseztapenetik abiatuta. Podemoseko jendearen konfiantza, indarra eta espazio hura ordezkatzeko duen beste indar politiko bat bultzatzeko erabiltzea, berez, alderdiari berari traizio egitea da.

Primario hauek zerikusia dute Podemos alderdiaz, haren ausardiaz eta erresistentziaz harro egotearekin. Inor atzean uzten ez duen printzipio argietan oinarritutako proiektuarekin. Oldarraldiak datozenean ez da alde batera gelditzen; eraldatzeko ausardia du. Lurraldean sortutako proiektua da, baina Estatuko proiektuarekin koordinatzen dena, eta nazioartean ere laguntzen du hain une nahasian eta nazioarteko erronka handietan.

Era berean, primario hauetan Nafarroako Ahal Dugu zuzenduko duen taldeak parte-hartzea berreskuratzeko lan egin dezan nahi dugu, eta garai batean gune horretara berrikuntza-, bake-, justizia- eta ingurumen-proiektu batean bere aletxoak jartzeko asmoz hurbildu zen jendea berriro ere erakartzeko jardun dezan. Gizarte zibilaren eskutik lan egitea eta erakunde hori gidatzen duten printzipioak inork zalantzan ez jartzea oinarri hartuko da, orobat.

Eta, orduan, Ahal Dugu indartsu dagoelarik, 2015ean Aldaketaren Gobernuak ekarri zuen alderdiaren antzeko Ahal Dugu batekin hitz egin ahal izango da ezker alternatibo bat aurkeztuko duten aliantzak bilatzeari buruz. Horien helburua izango da Nafarroan urte hauetan galdu den eraldaketarako eta eragin politikorako gaitasuna berreskuratuko duten elkarguneak ahalbidetzea.

Ahal Dugu sortu zeneko helburuei, Nafarroan hauteskunde-proposamenetan ezarri ditugun helburuei buruz jardunez gero, berehala ikusiko dugu zer galera izan diren aurrerapenei dagokienez. Lehentasun gisa zerumuga berdea eta ekonomia berria zituen programa bat aurkeztu genuen, zainketen ekonomiari dagokionez zerumuga moreari lotuta zegoena; eta hori guztia lotuta zegoen demokraziaren babesarekin, eskubideekin eta herritarren bermeekin. Akordio programatikoak, aurrekoa bezala, desioz eta hitz politez beteta dago, baina ez du aurrerapen edo jarraitutasun txikirik ekarri 2015eko Akordio Programatiko handinahiaren aldetik, zeinak helburu hori lortzeko oinarriak jarri baitzituen.

3 titulua. Nafarroa Ahal Dugu, memoria duen etorkizuna.

Pentsiodunen itsasaldia

Azken hamarraldian gertaera ugari izan dira nazioartean, nazio mailan eta erkidegoan, horrenbeste ezen esan zitekeen ehun urte igaro direla. Eta gorabehera historiko horiekin batera, gure alderdia aurrera zihoan gure Foru Erkidegoan. Ahal Dugu indar handiz sartu zen Nafarroan, hamarnaka zirkulurekin; batzarrak egiten ziren, gure erakundearen oinarritzko printzipioak eztabaidatzen ziren, eta, egitura hori finkatzeko ia astirik gabe, talde parlamentario iritsi berri bati, ilusioz beteriko pertsonekin (alderdi konbentzionaletan ikus daitezkeen politikaren "profesionalitate" oso urrun) eutsi behar zitzaizola ikusten zen.

Garai hartan Nafarroako Ahal Dugu alderdiko pertsona gehienak mugimendu sozialetatik etorriak ziren, plazetan adierazitako suminduratik, baina pertsona haietako asko gure alderditik aldenduz joan dira denborarekin eta hainbat arrazoiengatik. Beste pertsona askok, ordea, iraun egin dute, eta ireki den espazio partekatu txikienean parte hartu dute, nahiz eta oso gutxi izan. Hamar urte hauetan, Nafarroako Ahal Duguren militantziari eusteko funtsezko eragilea izan da Nafarroako pentsiodunen kolektiboa, zalantzarik gabe eta pisu handiarekin; alderdiaren eta gizartearen arteko transmisio-uhala izan da, eta, horregatik, talde horri borroka eta erresistentzia eredu garria aitortu nahi diogu.

Talde hori funtsezkoa izan da, hain zuzen ere, konformismoari eta gaitz txikienaren aldeko joerari aurre egiteko; izan ere, joera horiek herritarrak ez mobilizatzea sustatzen dute, alternatiba demokratikoak mugatzen baitituzte eta egiturazko arazoei aurre egiteko eta benetako eraldaketak gauzatzeko anbizio politikoa ezabatzen baitute. Proposamen eraldatzaileei uko egiteak saihestu nahi den gaitzaren garaipena dakar, eskuin muturrerako bidea errazten lagunduz.

Egunotan herrialde osoan ikusten ari gara hainbat alderdi konformatu egin direla bere baitan itxita dagoen PSOErekin, eskuin ustel bat bueltatuko den beldurrez sistema honetan egin beharko lirakekeen eraldaketa sakonetan aurrera egin gabe, eta, azkenean, alderdi sozialista horrek ustelkeriara, berriz armatzera, eskubideen aurrerapenari oztopoak jartzera eta eskuineko politiketara jo du.

Horrek izan behar du [Orgullosamente Podemos – Ahal Dugu Harrotasunez](#) koaliziotik planteatzen dugun proiektu politikoaren gakoa, desmobilizazioari aurre egitea, atzean geratu den militantzia hori guztia aktibatzea eta planteatzen zaizkigun erronka garrantzitsuei aurre egitea. Mobilizazioaren aktibazio horretan, zuzenean jo behar da gazteengana, beren eskuak prest izan behar ditugu aldarrikapenen lekukoa hartzeko, politika eraldatzaileei jarraipena emateko. Erakargarriak izan behar dugu beraien militantziarentzat, eta ez dugu lortuko gure militantzia aktiboa gabe.

Erronkak bide paraleloetan

Aurrera begira ditugun erronkak bi planotan garatuko dira. Alde batetik, eta legegintzaldi honetan zehar, Contigo-Zurekin hauteskunde-koalizioaren bidez eta eratu diren egitura organiko eta

instituzionalen bidez helaraziko zaizkie erakundeei programa-proposamenak. Horretarako beteko dira koalizio-akordioak, sortze-agiriak eta Nafarroako hautesleekin eta alderdi fundatzaile bakoitzaren militantziarekin 2023an hartutako konpromisoak.

Ildo horretatik, primario hauetatik Nafarroan irteten diren Herritarren Kontseiluak eta militantziak bermatu beharko dute babestuko dutela koalizio hori, sortze-dokumentuan adostutako baldintzetan eta dagokion foru eta/edo udal legegintzaldia amaitu arte. Nafarroako Ahal Dugutik etorritako Contigo Zurekin taldeko kargu publikoek, beraz, ordezkaritza instituzionalari eutsiko diote, baldin eta Nafarroako Ahal Duguren konpromisoak eta Contigo Zurekin koalizio-hauteskunde akordioa babesten eta betetzen badituzte.

Legegintzaldi honetan lortutako akordio programatikoaren garapenarekin batera, Ahal Duguk bigarren maila batean lan egingo du, datozen hauteskundeei begira proposamen politiko bat garatuz. Proposamen horren helburua da sistema aldatzea, eta helburua da, halaber, ez gehiago hitz egitea hazkunde ekonomiko handiena, lehiakortasunik handiena (neoliberal globala) eta esportaziorik handienak lortzeari, enpresa-etekinak lortzera bideratutako bikaintasun ekonomiko eta teknologikorik handiena lortzeari buruz.

Maximoak lortzera jo behar dugu, bai, baina jasangarritasunari, berdintasunari, justizia sozialari eta demokraziari dagokionez. Planeta osoa Lurraren baliabideen muga gainditzen ari den garai honetan, ezin dugu hazkundearen eta lehiakortasunaren dinamika berberean jarraitu, hazkunde iraunkorraren kultura lan egin behar dugu, eta lehenbailehen.

Ez badugu kolapso ekologikoa eta zibilizazioaren kolapsoa iristea nahi, hainbat aldaketa egin behar ditugu, aldaketa azkarrak, sakonak eta gure eredu ekonomikoan aurrekaririk gabeak larrialdi klimatikoari aurre egiteko. Planeta jadanik ez da baliabide-iturri amaigabea eta ez dugu gure hondakinen hustubide agortezina balitz bezala jardun behar. Egia da, azken legegintzaldietan, Nafarroako Gobernuak, parlamentuaren gehiengoaren eskariz eta gizarte entitateen eskaerei jarraituz, gure erkidegoan Garapen Iraunkorreko Helburuekin lotutako politiken jarraipena egitea erabaki zuela. Hala ere, gaur egun enpresa-ehunaren zati txiki bat baino ez dago ekonomia zirkularrarekin kontzientziatuta eta aplikatzen du ekoizpen-prozesuetan. Eta beste gutxiengo txiki batek oso azaletik erabiltzen du, eta, jakina, ikuspegi orokorrik gabe, eta are gutxiago beherapenaren ideia hurbildu gabe.

Erakunde publikoetatik desagerrarazi behar dugu jardun gaizto hau: “Galerak arlo publikoan eta irabaziak pribatuan”, ekintza zehatz eta tematien bidez. Demokraziaren onerako, betoa jarri behar zaie lehiaketa publikoetan jarduteko praktika usteletan inplikaturako enpresei, eta dirulaguntza publikoak jasotzea debekatu behar zaie.

Zorionez, gure lurraldean badira iraunkortasunaren gaia argi dutenak eta aspaldidanik aplikatzen dituztenak; gizarte zibileko erakunde batzuk dira, hala nola Emauseko Trapuketariak, ekonomia zirkularrean adituak eta Europako proiektuak egiten ere adituak. Edo Nafarroako GGKEen Koordinakundea, aspalditik garapen hezkuntza-proiektuak koordinatzen dituena. Funtsezko jarduera da hori, benetan gai horietan inplikaturako gizartea nahi badugu.

Ildo beretik, garrantzitsua da nekazaritzaren iraunkortasuna bilatzea, eskoletan, auzo-elkarteetan eta enpresa-elkarteetan sustatu beharko litzatekeen kontsumo arduratsuekin eta ekologikoarekin lotuta. Elikadura-subiranotasunari lotutako iraunkortasuna, aspalditik defendatzen ari garen hori. Hala eta guztiz ere, azken urte honetan nekazarien protestak etengabeak izan dira,

horietako batzuek instituzioei eraso egin diete, eta beren alderdiek parlamentuan defendatu eta bozkatu dutenaren aurkako politikak eskatu dituzte. Ez dezagun ahaztu PPK, VOXek eta PSNk bat eginda bozkatu dutela TTIP eta Mercosur itunen alde, eta horiek kalte handia egin diete tokiko ekonomia globalei.

Hautagaitza honen konpromisoa da Bardeetako industrialdea eraisteko lan egitea. Hiru urte estrategiko geratzen dira Nafarroa gerrarako plataforma gisa erabiltzeari uzteko, gure oroimena, duintasuna eta bakean bizitzeko borondate kolektiboa iraintzen dituelako. Bakea ez baita armadekin eraikitzen, justizia sozialarekin baizik, nazioarteko elkartasunarekin, herrien arteko errespetuarekin.

Nafarroako Ahal Duguk lan egingo du ezein zerbitzu publikoren kudeaketan inbertsio-funtsei betoa jartzeko. Osasuna, zaintzen inguruko laguntza-zerbitzuak, hezkuntza, bizilekuak, tutoretzapeko pisuak eta, jakina, etxebizitzak, alegia Ongizate Estatua osatzen duen eta diru publikoarekin finantzatzen den oro, ezingo da putre-funtsetan sartu.

Lan hori guztia Nafarroako Herritarren Kontseilutik egingo dugu, Ahal Dugutik bultzatuko ditugun sektoreko eta lurraldeko lan-mahaiekin harremanetan jarrita. Lan-mahaiak gizarte zibilarekin, gure oraina eta etorkizuna osatzen duten eragile ekonomiko eta sozialekin. [Podemos – Ahal Dugu Harrotasunez](#) izenarekin egingo dugu lan hori.

